

Ekintza osagarriak: kanpo-ekintzen hausnarketa bat

Xabier Elortza

Ondorengo lan honen abiapuntua 1988ko urtarilaren erdialdera jarri behar da. Garai hartan ebaluazio-bileren jarraipenari eskualdeka ekin zitzaion. Bilera horietako batean mahaigaineratu zen kanpo-ekintzen inguruko azterketa bat egitearen premia. Adierazpen horrekin ordura arteko ekintzetan somatzen zen nolabaiteko norabide-eza azpimarratzen zen. Zuzendarien eritzitan beharrezkoa zen egoeraren azterketa egitea.

Beste askotan bezala, arazo nagusiena lana aurrera eramateko giza baliabideak aurkitzea izan zen; eta, gorabehera bat baino gehiagoren ondoren, 1988ko abenduan Udal Euskaltegieta-ko zuzendari-talde batek eginkizuna bere gain hartzea erabaki zuen (Aretxabaleta-Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Bergara, Eibar eta Elgoibar). Lurraldeko Euskaltegi Publikoetako Zuzendari-Batzordeak bere onespina eman eta 1989rako egitasmoetan jaso zen, lan-taldera HABEren Ikuskatzaile bat atxikitu zelarik.

Urtarrilean egindako bileran gaia nola jorratu eztabaidatu zen. Ezinbestekoa ikusi zen euskaltegietan egiten

dena jasotzea eta aztertzea. Emaitez erakutsiko zuten gerora norantza jo eta indarrak non zentratu. Horrela, bada, bilketarako bidea aztertzeari ekin zitzaion. Egokiena fitxa-sistema erabiltzea zirudien. Fitxa horretan 1987-88 ikasturtean zehar egindako kanpo-ekintzek izango zuten islada. Kanpo-ekintza bakoitzeko fitxa bat osatu behar zen eta irakasle bakoitzak egin behar zuen lan hori.

Behin fitxak bilduz gero, otsailean bilera berri bat egin zen bildutako informazioa sailkatzeko; eta, behin datu-bilduma burutuz gero, bakarkako azterketa-faseari ekin zitzaion. Maia-tzaren hasieran taldea berriro bildu eta, datuen irakurketa egitearekin bat, behin-behineko proposamen batzuk egin eta horien berri ematea erabaki zuen. Orain arteko historia labur honek markatuko du lan honen haria.

1. Datu-bilketarako urratsak
2. Datu-bilduma
3. Datuen irakurketa
4. Proposamenak

1. DATU-BILKETARAKO URRATSAK

Sarreran aipatu bezala, datu-bilketa-rako oinarritzko tresna galdeketa-fitxa izan da (ikus .1). Mereziko du, beraz, fitxa horren ibilbidearen azterna nagusienak aipatzea.

Honelako lantxo bat burutzeko ezin bestekoa zen taldeko partaide bakoitzaren eritzi eta informazio partzialaz gaindiko informazio objektiboagoa; baina, bestalde, jakitun zen taldea informazio fidagarriago eta zorrotzagoa lortzeak ekar zezakeen lan-bolumen ikaragarriaz. Horrexegatik, eta hasiera-hasieratik, argi utzi zen lortu nahi ziren helburuen eta horien lorpen-erako jarri beharreko baliabideen arteko oreka beharra. Puntu honetan hartu ziren lehen erabakiak:

- a) Lanaren helburua kanpo-ekintzen gaira gutxieneko seriotasun batez hurbiltzea zen, hausnarketa-bide bat irekitzea eta inolaz ere ez azken hitzik esatea.
- b) Askozaz ere lan sakonagoa egin zitekeen arren, nahikotzat jo zen oinarritzko galdeketa bat egitea (ikus .1eko fitxa) eta horren oinarritzko tratamendu estatistikotik abiatzea, alde batera utziz tresneria zorrotzagoen aukeraketa eta ondorengo tratamendu estatistiko sakonagoak.
- c) Bederatzi puntuz osatutako galdeketa-fitxa bat sortu zen, taldeak interesgarri eritziako beste horrenbeste punturen inguruko informazioa jasotzeko.
- d) Informazioa eskatzeko tresna aski zabala suertatuko zen; baina, galdeketa eskualdeko euskaltegi-tara mugatuz, zuzeneko informazio erreferentziala jasotzeko bidea zegoen, galdeketa informazioari beharrezko korrektoreak ezarri ahal izateko.

- e) Eskualdeko sei euskaltegi-tara mugatzeaz bat, 87/88 ikasturtera mugatzea erabaki zen, lortutako informazio-bolumena erabilgarria gerta zedin. Kontutan har datuen tratamendu estatistikoa eskuz egin zela.

Horrela, bada, aurrera egin zen, eta hiru asteko epean eskualdeko irakasle bakoitzak norbera partaide izandako ekintzei buruz betetako fitxa bana jaso zen. Fitxekin batera beste informazio garrantzitsu hau ere jaso zen:

- 1) Oro har, atseginez burutu zen lan hau.
- 2) Oso agerian geratu ziren irakasle eta euskaltegien eritzi ezberdinak; izan ere, euskaltegi batzuetan ez ziren besteetan kanpo-ekintza bezala eritzi zituzten hainbat ekintza jaso. Kontsiderazio hori jaso ez zuten ekintzak geroxeagoko datuetan, poteoak, afariak eta ospakizunak ataletan jasoko direnak izan ziren. Beraz, hurrengo ataleko datuetan agertzen diren baino askoz poteo, afari eta ospakizun gehiago egin ziren.

Bestalde, eta datu zehatzetara jo baino lehen, komeniko da datuen tratamenduaz aipamenen bat edo beste egitea.

- a) Lehenago aipatu bada ere, azpimarratu datuen tratamendua eskuz egin dela.
- b) Jaso den informazioaren artean datu batzuk kuantifikagarriagoak izan dira beste batzuk baino. Arazotxoren bat izan da informazio kuantifikagaitzago hori multzokatzerakoan. Edozein modutara ere, lan hori informazioa jaso ondoren hartutako erabakien arabera egin da, beti ere taldearen kontsentsutik abiatuz.

KANPO-EKINTZAK 87/88

1. Zer egin den deskribatu
2. Hizkuntz maila:
3. Zein erritmotako ikasleak:
4. Zenbat partehartzaileri begira:
5. Helburuak:
6. Iraupena:
7. Noiz egin den: . data
 . eskolorduetan bai ☐ ez ☐
 . eskolegunetan bai ☐ ez ☐
 . goizez bai ☐ ez ☐
 . arratsaldez bai ☐ ez ☐
 . iluntzean bai ☐ ez ☐
8. Sortu duen dinamika, sortu badu:
 . ekintzaren aurretik
 . ekintzaren ondoren
9. Antolaketa:
 . erabakia nork hartu duen
 . antolaketaz nor arduratu
 . oztopo edo zailtasunak

• 1

2. DATU-BILDUMA

Bilketa-fitxan (ikus .1) jasotzen diren puntuei jarraituz, atal honetan datuen ikuspegi orokorra ematen saiatuko gara.

1) Zer egin den deskribatu

Fitxetako lehen puntutik jasotako datuak dira. Sarreran esan bezala, fitxetan datozenak nolabait ordenatu

behar eta ondoko taula hau asmatu da, 185 fitxetan jasotakoa aditzera emateko. Irakurketzerakoan kontu izan hiru asperturekin:

- a) Multzoak ezartzerakoan bat «osagarriak» izenez deitu da. Multzo honetan ageri direnei berezi samarrak eritzi zaie; hau da, ez da oso argi ikusten askotan barruko ekintzak diren edota kanpo-ekintzak. Beraz, «osagarriak» deitu multzoa nolabaiteko «hondarren kutxa» edo izan daiteke.

b) Multzo bakoitzaren barruan bi aspektu bereizi dira, hau da, euskaltegian bertan egiten diren ekintzak eta euskaltegitik kanpo burutzen direnak.

c) Fitxa bakoitza multzokatu da, ez fitxetan datorren informazioa. Hau da, zenbait fitxetan ekintza

bakar baten azpian bizpahiru edo ekintza gehiago aurki zitezkeen (adib.: txango baten barruan erakusketa bat ikusi, elkarrizketa bat izan, poteoa ...). Sailkapen hone-tarako, ekintza bakar bezala hartu dira, taldearen eritzitan adierazgarrien edo pisurik gehien zuen ekintzaren baitan, alegia.

<i>Ekintza-motak</i>	<i>Euskaltegian</i>		<i>Kanpoan</i>		<i>Guztira</i>	
Antzerkiak	4	%	4	%	8	4,3
Filmeak	1		5		6	3,2
Txangoak	0		35		35	18,9
Hitzaldiak	13		4		17	9,1
Bisitaldiak	0		29		29	15,6
Afariak	1		19		20	10,8
Ospakizunak	22		2		24	12,9
Poteoak	0		19		19	10,2
Erakusketak	1		10		11	5,9
Elkarrizketak	1		2		3	1,6
Jokoak	3		1		4	2,1
Inkestak	0		1		1	0,5
Kantaldiak	0		2		2	1,0
Osagarriak	5		1		6	3,2
<i>Guztira</i>	51	27,5	134	72,5	185	100,0

2. Hizkuntz maila

Ohartuko zarenez, fitxa-kopurua baino datu-kopuru ugariagoa dator ondoko taulan. Hori fitxa bakoitzean hizkuntz maila bat baino gehiago agertzeari zor

zaio. Adibide gisa, antzerkiaren inguruko ekintzak guztira zortzi izan badi-ra ere, horrek ez du esan nahi ekintza batean hizkuntz maila bakarrekoek parte hartu dutenik. Hortatik, beraz, taulan antzemango duzun pilaketa.

	EGA	8.ur	7.ur	6.ur	5.ur	4.ur	3.ur	2.ur	1.ur	Alfa	<i>Guztira</i>
<i>Ekintz kopurua</i>	59	57	57	53	59	51	47	40	29	27	479
<i>Guztiaren %</i>	12,3	11,9	11,9	11	12,3	10,6	9,8	8,3	6	5,6	100

Datu hauen esagarritasuna ulertze-ko, hona ondoren aztergai diren sei

euskaltegietan emandako matrikula-zioa urratsez urrats.

	EGA	8.ur	7.ur	6.ur	5.ur	4.ur	3.ur	2.ur	1.ur	Alfa	<i>Guztira</i>
<i>Ikasleak</i>	62	46	78	75	86	132	114	92	257	192	1.134
<i>Guztiaren %</i>	5,5	4	6,9	6,6	7,6	11,6	10	8,1	22,7	16,9	99,9

3. Erritmoa

Hona hemen daturik aipagarrienak,

ekintzak antolatzerakoan xede-errit-moa zein izan denari dagokionean.

	5 ordu	3 ordu	2,5 ordu	2 ordu
<i>Ekintz kopurua</i>	30	56	4	121
<i>Guztiaren %</i>	14,2	26,5	1,9	57,3

Datu hauek inolako balorerik izan dezaten, ezinbestekoa dirudi beste datu batzuk ere ematea, nahiz eta hauek inkestatik ateratakoak ez izan. Ondoko

taulan dituzu 87-88 ikasturtean fitxa-jasotzea egin den sei euskaltegietan emandako matrikulazioa —ikastalde eta ikasleak— eta erritmoak:

	5 orduz Kop. %		3 orduz Kop. %		2,5 orduz Kop. %		2 orduz Kop. %		<i>Guztira</i> Kop. %	
<i>Taldeak</i>	26	28,9	8	8,9	1	1,1	55	61,1	90	100
<i>Ikasleak</i>	256	22,6	111	9,8	12	1	755	66	1134	100

4. Zenbat partehartzaileri begira

Fitxetan jasotako erantzunak nola-bait sailkatu behar eta ondoko erizpi-deak erabili dira:

Hiru aldagai ezarri dira: 1) talde bati begira antolatuak, 2) bi edo hiru talderi begira antolatuak, 3) hiru ikastaldetatik

gora begira antolatutakoak. Horretarako, ondoko erizpidea erabili da:

18 ikasle bitartean talde bat bezala ulertu;

19-45 bitartean bi edo hiru ikastalde bezala;

46tik gora, hiru ikastaldetatik gorako talde-kopuruari begira antolatuak.

	Talde bat	2/3 talde	Gehiago
<i>Ekintz kopurua</i>	127	37	20
<i>Guztiaren %</i>	68,7	20	10,9

5. Helburuak

Aurreko ataletan bezalaxe, helburuei dagokienean ere komeniko da oharren bat edo beste egitea taula aurkeztu baino lehen.

Hasierako ekintzen multzokatzean egin bezalaxe, helburuei dagokienean ere, inkestak jaso eta irakurri ostean erabaki da zer-nolako multzokatzea egin. Asmatuko ahal genuen! Bestalde,

aparteko interesa jarri da markatutako helburuak orokorrak edota operatiboak diren jasotzen.

Horrezaz gain, berehala ohartuko gara taulan fitxa-kopurua baino helburu-kopuru zabalagoa jasotzen dela. Hori zenbait fitxatan helburu bat baino gehiago etortzeari zor zaio.

Hona hemen datu laburtuak:

		%
<i>Helbururik ez</i>	7	—
<i>Helburu orokorrak</i>	263	95,6
<i>Helburu operatiboak</i>	12	4,4
<i>Helburuak guztira</i>	275	100

6. Iraupena

burutzen zenbat denbora eman den
biltzen da:

Ondoko laburpen taulan ekintzak

	Kopurua	%
<i>Egun bat baino gehiago</i>	6	3,2
<i>Egun osokoak</i>	20	10,8
<i>Egun erdiz</i>	22	11,9
<i>Eskola saioa betez</i>	53	28,6
<i>Eskola saioan txertatuz</i>	69	37,3
<i>Erantzunik ez</i>	15	8,1
<i>Guztira</i>	185	99,9

7. Noiz egin dira kanpo-ekintzak

hilabetea hartuz, eta eskolordu, eskole-
gun eta egunean zehar zein garaitan
burutu diren ekintzok.

Aspektu honi dagokionean, bi ikus-
puntu bilduz jaso dira datuak: errefe-
rentzi moduan ekintzak burutu diren

Hona hemen laburpenak

a) Kanpo-ekintzak hilabetez hilabete

	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Irakurtzean zehar	Guztira	Erantzunik ez	
<i>Guztira</i>	1	7	8	12	3	24	14	14	18	14	14	35	164	21	185
<i>Multzokatuz</i>		28				41			46		14	35	164	21	185
<i>Ehunekotan</i>		15'1				22'2			24'8		7'5	18'5	88'6	11'4	100

b) Kanpo-ekintzak beste une batzuetan

- Eskolorduetan bai/ez

		%
<i>Eskolorduetan</i>	136	73,5
<i>Ez eskolorduetan</i>	27	14,6
<i>Erantzunik ez</i>	22	11,9

- Eskolegunetan bai/ez

		%
<i>Eskolegunetan</i>	152	82,2
<i>Ez eskolegunetan</i>	15	8,1
<i>Erantzunik ez</i>	22	11,9

- Egunean zehar zein garaitan

		%
Goizez	73	37
Arratsaldez	58	29,4
Iluntzean	66	33,5

Agian, harrigarri gertatuko da, 185 fitxen hustuketaren eraginez edo, 197 kanpo-ekintzari dagozkien datuak izatea. Hori inkesta prestatzerakoan kontutan izan ez den aspektu bati zor zaio. Hau da, kanpo-ekintza ezberdin bakoitzeko fitxa bat eskatu zen; baina atal honi erantzuterakoan, zenbait irakaslek kanpo-ekintza bera birritan edo burutu badu, eta garai ezberdinetan, hori isladatu egin du fitxan, eta lan honetan, noski, horrela jaso.

8. Kanpo-ekintzen sortutako dinamika, sortu badu

Atal honetan ere bi aspektu ezberdini dagokion informazioa eskatu eta jaso da:

- a) ekintza burutu aurretik sortutako dinamika;
- b) ekintza burutu ondoren eragindako dinamika.

Bietan arazo berberarekin egin da topo: irakasleek emandako erantzunak nola multzokatu. Horra egindako aukera eta jasotako datuak:

a) Ekintza burutu aurretik sortutako dinamika

	Ezer gutxi	Infor. bildu	Prestaketa/ planifikaz.	Kantak ikasi	Mozorroak egin	Ikusmira	Galdeketa prestatuta	Irakurri/ikasi beharra	Jendea animatu	Hilanoaren aurkezpena
Guztira	100	40	15	4	1	3	8	11	2	1
%	54	21,6	8,1	2,1	0,5	1,6	4,3	5,9	1	0,5

b) Ekintza burutu ondoren eragindako dinamika

	Ezer gutxi	Komentarioak	Giroa	Ekintza osatzea	Taldearen ebaluazioa	Informazioa pasatzea	Murala egin	Idazmena landu	Poza	Mintzamina indartu
Guztira	89	43	11	8	7	5	1	3	4	14
%	48,1	23,2	5,9	4,3	3,8	2,7	0,5	1,6	2,2	7,6

9. Kanpo-ekintzen antolaketa

Atal honen barruan hiru azpiatal bereiztu dira:

- a) Kanpo-ekintza burutzeko erabakia nork hartu duen.
- b) Antolaketaz nor arduratu den.
- c) Oztopoak eta zailtasunak zeintzuk izan diren.

a) Erabakia nork hartu du?

Berehala ohartuko garenez, erabaki gehiago agertzen da aztertutako fitxa-kopurua baino. Desoreka hori kasu-

ren batean edo bestean hartutako erabaki zabalari zor zaio; hau da, markatutako erabaki-multzo bat baino gehiago betetzen duen ekintzarik bada; eta, beraz, hortik 190 erabaki agertzearena.

	Irakaslea	Ikasleak	Ikasle eta irakaslea	Zuzendaria	Irakasle eta zuzendaria	Euskara Batzordea	Erantzunik ez	Guztira
Guztira	84	25	56	4	10	3	8	190
Ehunekotan	44,2	13,1	29,5	2,1	5,3	1,6	4,2	100

b) Antolaketaz nor arduratu da?

	Irakaslea	Ikasleak	Ikasle eta irakaslea	Zuzendaria	Irakasle eta zuzendaria	Euskara Batzordea	Erantzunik ez	Guztira
Guztira	58	37	37	13	10	3	27	185
Ehunekotan	31,4	20	20	7	5,4	1,6	14,6	100

c) Zeintzuk oztopo izan dituzu aurrera eramateko?

	Euskara-maila	Entzumen-maila	Ordutegia	Euskaletik kanpo izatea	Ikasleen parte ez hartzea	Toki desegokia	Oztoporik ez edo ezer gutxi	Erantzunik ez	Guztira
Guztira	6	1	1	2	2	3	119	51	185
Ehunekotan	3,2	0,5	0,5	1	1	1,6	64,3	27,6	99,7

3. DATUEN IRAKURKETA

Datu-multzoak ematen du biderik hainbat komentario egiteko. Agian luzetxo joko liguke dena zehatz-mehatz adierazteak. Aipagarrienak:

- Aspektu positiborik jotzekotan, ekintzak egiten direla azpimarratu.
- Proportzioan poteo, afari eta ospakizun asko egin dira. Txangoak zer esanik ez.

- Lehen urratsetan egindako ekintzen helburuak aurkitzea zaila egiten zaio taldeari. Bestalde, egia da euskaletgi osoari begira antolatutakoak ere hementxe pilatzen direla.
- Kontraesana ikusten da erritmoen eta ekintzen artean. Bost orduz jardun duten taldeak guztia %22 izanik, eurekin antolatutako ekintzak %14 izan dira. Larriagoa da hiru ordukoetan

ikasleen %9,8 izanik, ekintzen %26,5.

- Helburuen atala kaotikoa da. Helburu operatiborik ez da ageri. Taldearen eritziz, hainbat helburu orokor mozorro hutsak dira. Bilketa-fitxa txukuntzeko erabili direla, alegia. Adibide gisa, txontxongilo-emanaldira joateari jarria: «inoiz egin gabeko zerbait egitea eta txontxongiloaren mundua ezagutaraztea». Helburu honek ekintza burutu ostean ezarritako «apaingarria» gehiago dirudi, pisuzko arrazoiaketa baino.
- Ekintza asko luzeegiak dira. Askotan ekintza batek eskolegun bat betetzen du, errentagarritasuna denbora horren laurdenean lor zitekeelarik. Hiru ordutako poteoak edo bi ordutako elkarrizketak luzeegiak dira inolaz ere.
- Ekintzarik gehien otsailean ematen dira (Inauteriak hortxe daude). Hemendik aurrera asistentzia kaskartzen hasten da, eta honi eutsi nahian edo erabiltzen direla esan daiteke. Udaberriak ere badu zeresanik.
- Eskolegunetan eta eskolordutan egiten den banaketa nahiko normala da.
- Ekintzak eragindako dinamikari dagokion atala ere kaotikoa da. Ekintzak helbururik gabe, antolaketak sendorik gabe, burutzea adierazten du honek. Benetan kezagarria da. Bestalde, argi ikusten da irakasleek ulertu ere ez dutela egin ekintzek eragindako dinamikaz galdetzean zer ulertzen den. Nahasketak ematen da batzuetan. Eraginaz galdetu eta ekintzaren beraren deskribaketaz erantzuten da. Oro har, ez da faserik bereizten ekintzaren garapenean.
- Ekintzak egiteko erabakia hartu duenaz galdetzen denean ikasleen ahotan erabaki asko jartzen dira. Dena den mota jakinekoak

dira gehienetan (poteo, afari, ospakizun, etab.).

Euskaltegietan egindako azterketak dioskunez, hainbat ekintza ikasleen erabakiari leporatu zaio; ez horrela delako, baizik eta irakasle goak nolorebait datuak txukundu nahi izan dituelako.

Salbuespenak salbuespen, azterketan aritu den taldeak zera uste du: gehienetan ikasleak irakasleak nahi duena egiten du. Beraz, erantzun honen azpian zera uler daiteke: irakasleak berak ere ez dituela estimu handian honelako ekintzak; eta, erabaki formalak ikasleek har baditzakete ere, irakasleek horretarako bidea eman dielako hartu dituztela. Adibidez, nahikoa izan daiteke irakasleak ostirale iluntzean «gaur ostirala da eta nekatuta gaude» esatea, ikasleek «goazen poteatzera» esateko. Gehienetan modu inkoszientean; baina honela ikasleari nolabaiteko «gonbitea» egiten diogu, bere proposamenak egin ditzan.

- Antolaketaz galdetzen denean, emaitzetan oso nabarmena da zuzendariaren parte hartze eskasa. Halere, ekintza aurrera eramateko oztopo eta zailtasunez galdetzean, oso gutxi agertzen dira. Honek zera esan nahiko luke: askotan zuzendariak edo idazkari-administrariak bideratzen dituztela ekintzen antolaketak; eta, beraz, horretatik horren zailtasun gutxi izatearena.
- Laburpen modura edo zera esan daiteke:
 - Helburuetan eta sortzen duten dinamikan daude hutsunerik nabarmenenak.
 - Errazegiak dira burutzen. Oso mekaniko bilakatzen ari dira.
 - Definizio-falta nabaria ikusten da. Irakasle batek kanpo-ekintza deitzen duena beste ba-

- tentzat ez da kanpo-ekintza, baina ez daki nola deitu.
- Ekintzak ez dira ebaluatzen. Bestela ezin dira ulertu helburuetan eta sortzen duten dinamikan ematen diren datuak.
 - Ikaslearen partaidetza eskatzen dute ekintzek, baina egia da arazo ugari dagoela alde honetatik. Ikasle askok ez du ekintzarik nahi. Zergatik?
 - ☐ Ikasleak ere ekintza asko denborapasa moduan ulertzen dituelako (behar bezala ez antolatzearen ondorio izan daiteke hori).
 - ☐ Ikaslea babestua sentitzen da eskolan; handik kanpora, ordea, erasotua.
 - ☐ Ikasle batzuei ez zaizkie proposatzen zaizkien ekintzak gustatzen.
 - Oso ebaluazio gutxi egiten dira ekintzen inguruan. Bada ohiturarik eskola-barruko tekniken emaitzak komentatzeko; kanpo-ekintzei dagokienean ezer gutxi. Kanpo-ekintza oso da irakasle bakoitzaren alorra. Gehien komentatzen dena ikasleen jarrera eta ekintzaren ongi edo gaizki ateratzea. Ez dira eginkizun konkretuak eta hauek arrakastaz burutzeko teknikak komentatzen. Seguruenik ez daudelako programaturik.
 - Eten metodologiko nabarmena ematen da eskola-barruko dinamikak eta kanpo-ekintzek eskatzen dutenaren artean. Kanpo-ekintza arrakastatsuak ikasle bakoitzaren ezinbesteko inplikazioa eskatzen du, eta sarri askotan urte osoan irakasleak ez du ikaslearen eskuhartze hori bermatzen. Bestela esanda, kanpo-ekintzetan ikaslearen parte hartzea aktiboa izatea nahi bada, urtean zehar ere horrela jokatzeko ezinbestekoa da. Beraz, ikaslearen parte hartze aktiboa lortu behar da lehenik, urteko programaren berri zehatza emanez, ebaluazio-prozesuan zuzenean partaide eginez; eta horrela errazago izango da, ez da etenik emango, urteko jokaera eta anpo-ekintzaren artean.
 - Somatzen da halako errudun-komplexua irakaslerengan ekintzak gaizki ateratzen direlako. Arrazoiketa? Lehenxeago aipatutako ikaslearen jarrera: gai atseginiak aurkitu ezinean, eritzi pertsonalak ematea gero eta zailago izatean jartzen dira. Antolaketa hobetu behar dira besteak beste.
 - Oso hedatua dagoen eritzia da ikasleei gustatzen zaizkien gaiak bilatu ezin izatearena. Argi izan behar dugu ikasleak atsegin zaiotz gain beste gauza batzuk ere erabili beharko dituela. Irakasleak lan egin beharko du honelako gaiak gustagarri erakusten.
- Bada beste aspektu bat ere honekin loturik doana eta ekintzen helburuekin lotura hestua duena: gaiaren egokitasuna eta hizkuntz hustirapena. Zenbaitetan nahastu egiten ditu irakasleak bi aspektu hauek; kontutuan izan behar da askotan gaiari zukua ez ateratzeak ez duela beti hizkuntz hustirapen eskasa adierazten. Helburuak, beraz, zehatz markatu eta ebaluatu behar dira aspektu honetan ere.

4. PROPOSAMENAK

Aurreko puntuan jasotako eritzi-mul-tzoaren argitan, taldeak ezinbesteko ikusten du behin-behineko proposamen batzuk egitea.

- a) Orain artean kanpo-ekintza izenez ezagutu ditugun ekintza hauei *ekintza osagarriak* deitzea. Ekintza osagarriok, era berean, kanpo-ekintza eta

barne-ekintza artean banatuko genituzke. Zertan oinarritu, bada, kanpo-eta barne-ekintzak deitzaizkion?

Kanpo-ekintza euskaltegitik kanpora burutzen den ekintza osagarria da, hau da, euskaltegiaren muga fisikoak gainditzen dituen. Barne-ekintza, aldiz, euskaltegi barruan burutzen dena. Zertan datza edo non dago, ordea, eskola-barruko jarduna eta barne-ekintzaren arteko muga? Barne-ekintza moduan ulertuko da eskola barruko ikas-irakasle multzoa irekiz egiten den ekintza. Taldez kanpoko norbait taldera ekartzean, beraz, barne-ekintza moduan ulertuko da.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu terminologiari dagokionean ere ekin-tzen alorra finkatzea, razionalizatzea.

- b) Edozein ekintza osagarri, kondizio hori izan dezan, gutxienezko elementu hauek beharko ditu bere baitan:
 - Helburu definituak:
 - orokorrak
 - operatiboak
 - Baliabideen aukeraketa eta deskribapena
 - Antolaketa zehaztua
 - Ebaluazio zehatza

1. *Helburu definituak.* Orain arteko ekintza asko eta askotan helburuok egin dute kale. Ezinbestekoa da helburua ekintza bera burutze-tik harantzago jartzea. Eta ez bakarrik helburu orokorrak, baita operatiboak ere ahalik eta zehatz-zen. Batzuentzat agian arraro egingo da «helburu operatibo» hitza bera ere. Hitz honekin zera adierazi nahi da, helburu diren eginkizun guztiak pausoz pauso eta ahalik eta zehatzen markatu behar direla.

2. *Baliabideen aukeraketa eta deskribapena.* Ekintza egoki baterako,

eta helburu zehaztuekin bat, ezinbestekoa da ekintza egoki garatzeko behar diren baliabideak zuzen antolatzea. Bai giza baliabideak, bai baliabide material eta ekonomikoak. Aspektu hauetan ere zerbait dago. Askotan erabaki hutsa nahikoa da ekintza burutze-bidean jartzeko; eta horra hor porroterako biderik egokienetakoa.

3. *Ebaluazio zehatza.* Beste edozein eskola jarduerak bezalaxe, ekintza osagarriek ere aurrez ebaluaziorako tresnak programatuta izatea eskatzen dute. Orain arteko esperientzia gutxi ebaluatu izan dira; eta narrats antzera, gainera, kasu gehienetan.

c) Ekintza osagarrietan ezinbesteko bihurtzen zaigu garapen-faseez hitz egitea. Ekintza osagarria ez da bapatean sortzen den perretxikua; baizik eta eskola-jarduna, hitzak berak dioen bezala, osatzera eta indartzera datorrena. Txertakuntza hori gogoan izatea, beraz, ezinbestekoa da.

Alde batetik, ekintzak ezin daitezke une jakin batean sortzen diren elementuak izan, ikasprozesuaren garapenean aurrez programaturik dauden elementuak baizik. Honek ez du esan nahi ekintza erabat zehazturik programatu behar denik; baina bai zein garaitan, zein motatako ekintza eta zeintzu helburu betetzeko.

Bestalde, edozein ekintza osagarri gutxienez hiru fase bete beharko lituzke, ekintza osagarriaren kondizioa bera mantendu ahal izateko:

- Prestaketa
- Gauzatzea edo kanporatzea
- Azterketa

Fase guztietan ekintza osagarriari ezarri dizkiogun pausoak gordetzea ezinbestekoa da. Fase bakoitzak behar

ditu bere helburu operatiboak, antolaketa, baliabideen azterketa eta ebaluazioarako tresnak.

Gure baieztapen hau argitu asmoz, hortxe duzu (ikus 2an) ekintza osaga-

rri baten eredu ez-osotua; izan ere, lekutze konkretuaren ondorioz ezarri beharreko hainbat datu falta bait dira, hala nola, ikasle-kopurua, betetze-data, urratsa, ordutegiak, faseen iraupenak ...

Elkarriketa Pello Zabalorekin

1. fasea: Prestaketa

- *Helburuak*

Kanporatze fasea «berotzea», hau da, gauzatze-faserako behar den motibazioa sortaraztea.

- *Operatiboak*

- Eguraldiaren inguruko hiztegiak jabetzea.
- Eguraldi-iragarkizunak ulertzea.
- Eguraldiaren berri ematen jakitea.

- *Baliabideak*

- Girotze-ariketa. Irakasleak eguraldiari buruzko galderak egingo ditu, interesa eta hiztegi espezifikoaren premia senti dezaten arte. «Zein eguraldi egiten du gaur? Eta joan den astean? Zergatik dugu eguraldi hau? Nola esaten da euskaraz «Arco Iris»?...»
- Eguneko eguraldiaren iragarpenera Pello Zabalaren eskutik, Euskadi Irratitik hartua. Entzun eta ulertu. Komentarioen bidez hiztegi espezifikoa ateratzen joan eta arbelean idatzi. Ikasleek jakin dezaketena ere ezarri.
- Artikulua irakurri eta ulertu («Pello Zabala, Zerura begira», HABE 146). Komentarioen bidez hiztegi espezifikoa ateratzen joan eta arbelean idatzi.
- Pello Zabalorekin elkarriketatzeak galderak prestatu. Hiru azpitaldetan egin daiteke. Bukaeran hiru hormairuditan ezarri galderak Pello Zabalaren argazki banarekin ikasgelan.

- *Antolaketa*

- Irakaslea arduratuko da materialak prestatu eta gida eramateaz.

- *Ebaluaketa*

Irakasleak elkarriketaren bidez testatu beharko du zenbaterainoko giroa lortu duen elkarriketarako. Hiztegiak jabetu diren eta eguraldiaren berri ematen dakiten, haserako pauso bera eginaz lor dezake (girotze-ariketa) edota labur-labur idatziz asteko eguraldiaren deskribapena egin dezaten eskatuz.

2. fasea: Gauzatzea edo kanporatzea

- *Helburuak*

Eguraldiaren gaia aitzakiatzat harturik, taldean elkarriketa kontrolatua (interview) egiten jakitea.

- *Operatiboak*

- Galderak egiten jakiteaz bat, galderei erantzuten jakitea.
- Hiztegiak jabetzea.
- Metereologi zentruko tresnen izenak ikastea.

- *Baliabideak*

- Pello Zabala bera.
- Arantzazuko Metereologi zentrua bisitatu.

- *Antolaketa*

- Zuzendaria arduratuko da koste ekonomikoak kudeatzeaz (Aurrekontuetan jasota izan behar dute). Oparitxo bat Pello Zabalari eta kilometrajearena bideratu beharko ditu.

- Pello Zabalorekin lehen harremana zuzendariak egingo du.
- Ahal bada, Pello Zabalorekin zuzenean irakaslea elkarriketatu; ezin izanez gero, telefonoz.
 - ☐ Ekintza osagarriaren pausoak zehatz mehatz adierazi.
 - ☐ Prestatu dituzten galderen zerrenda.
 - ☐ Pellok berak ikasleei galderak egin diezazkien eskatu.
 - ☐ Ordu erdiko elkarriketa eta ordu erdiz zentrua ikusteko plana dugula adierazi.
 - ☐ Elkarriketaren lekua eta ordua zehaztu.
- Irakaslea behar beste kotxe ikasleen artetik lortzen saiatuko da, eta irteera- eta itzulera-orduak koordinatzeaz.

• *Ebaluaketa*

Irakaslearen behaketa zuzenaz elkarriketa eta bisitaldia ebaluatu.

3. fasea: Azterketa

• *Helburuak*

Eguraldiaren inguruko hiztegia ezagutu eta erabiltzea.

• *Baliabideak*

- Hiztegi-zerrenda bat egin kartulinak erabiliz. Hitz bakoitzaren ondoan argazki edo marrazki bat ezarri beharko dute eta ikasgelako horman laga, urtean zehar gaurkotu eta osatzen joan ahal izateko.
- Idazlana: azken oporraldian egin zizun eguraldia deskriba ezazu hamabost lerrotan.

• *Antolaketa*

Zuzendariaren esku argazkiren batzuk eta kartulinak elkartzea.


• *Ebaluaketa*

- Elkarriketaren bidez, taldeko ebaluaketa egin. Irakasleak behaketaren bidez jasotako datuak eta idazlanaren zuzenketari dagokiona erabili.
- Taldeko zuzenketa-teknikaren bat ere erabil daiteke.

• 2

Bukatu baino lehen, seguruenik zeure burutik jadanik pasa den zerbait azpimarratu: ekintza osagarrian ezarri dugun hirugarren fasea ez da beti oso garbia. Batzuetan ekintza kanporatze-fasean buka daiteke. Horixe da orain arteko ohitura hedatuena; ekintza burutu da eta kitto, zer gehiagoren bila ibili?

Ez dugu ahaztu behar ekintza osagarriak ikasprozesuaren osagai direla; eta, beraz, ez ekintza isolatuak. Ekintza osagarriek ikasprozesuaosatzean dute iturburua eta ikasprozesuan uhobia. Beraz, ekintzak badu 3. fase horren premia, ekintzak eskaini dituen hobekuntzak ikasprozesuan txertatzen lagunduko duena. Besterik da 3. fase horrek behar duen egituraketa.



Azkenik, proposamenetako a) puntuan ezarritako ideia osatu nahi dugu. Ekintza osagarriak barne-ekintza eta kanpo-ekintzetan sailkatzen genituen. Aurreko adibidean (2) eman dugunaren arabera, sailkapen hori ekintza osagarriaren faseei dagokie zuzen-zuzenean. Adibidearen 1. fasea barne-

-ekintza moduan uler daiteke; 2.a, aldiz, kanpo-ekintza moduan; eta azkenik, hirugarrena barne-ekintza moduan.

Taldearen lanak honaino eman digu. Izango ahal da ekintza osagarrien munduan gehiago sakondu eta ikertu duenik!

ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS: UNA REFLEXION SOBRE LAS ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES

Se trata de un pequeño estudio realizado en los euskaltegis municipales de la Comarca del Deba sobre el número y naturaleza de las actividades complementarias realizadas durante el curso 87/88 por dichos euskaltegis.

El trabajo está articulado en torno a cuatro puntos básicos:

- 1) Pasos para la recogida de datos.
- 2) Descripción de los datos recogidos.
- 3) Una interpretación de los datos más llamativos.

- 4) Propuestas para una mejor articulación en el futuro.

Con los datos recogidos se pretende diferenciar los conceptos de «actividad complementaria» y «actividad extraescolar», al mismo tiempo que se busca crear un punto de partida para otros trabajos parecidos que, desde la discreción de los objetivos marcados y medios empleados, puedan ayudarnos a racionalizar nuestra actividad educativa, sin esperar a otros estudios más globales y ambiciosos.

SUPPLEMENTARY ACTIVITIES: A REFLECTION ON EXTRACURRICULAR ACTIVITIES

The article is concerned with a small study done by municipal euskaltegis (Basque language schools) in the County of Deva of the num-

ber and nature of supplementary activities carried out during the academic year 87/88 by the above mentioned euskaltegis.

The work is organized around four basic points:

1. Steps in the gathering of data.
2. Description of the data gathered.
3. Interpretation of the most striking data.
4. Proposals for an improved articulation in the future.

Using the data as a basis for argument, the article attempts to differentiate between supplementary activity and extracurricular activity, and at the same time, establish a point of departure for other work of a similar nature, which, by having more modest objectives and means, might help in rationalizing our educational activity, without having to wait for global or more ambitious studies to be done.

ACTIVITÉS COMPLÉMENTAIRES: UNE RÉFLEXION SUR LES ACTIVITÉS EXTRA-SCOLAIRES

Il s'agit d'une brève étude faite par les centres basques (euskaltegis) municipaux de la contrée du Deba, au sujet du nombre et de la nature des activités complémentaires réalisées pendant l'année scolaire 87/88 par les centres en question.

Le travail est axé sur quatre points fondamentaux:

1. Démarches pour le ramassage de données.
2. Description de ces données.
3. Une interprétation des plus remarquables.

4. Propositions pour une meilleure articulation, à l'avenir.

Avec les données ramassées, on veut établir une différence entre les concepts d'activité complémentaire et activité extra-scolaire, tout en essayant de créer un point de départ pour des travaux semblables qui, sans perdre de vue les objectifs choisis et les moyens employés, puissent nous aider à rationaliser notre activité éducative, sans s'attendre à des études plus globales et plus ambitieuses.